

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Diputatu nagusiaren 149/2020 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia, zeina kuadrilla eta udalei zuzendua baitago**

Diputatu nagusiaren otsailaren 14ko 75/2020 Foru Dekretuaren bidez, onetsi zen turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia.

Eskaerak aurkezteko epean, Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuen lurralde osoan, Covid-19 gaixotasuna hedatzearen ondorioz sortutako osasun krisi larria zela eta.

Ezohiko egoera hori izaten ari den eragina eta dirubilketan aurreikusten den murrizketa dela eta, Arabako Foru Aldundiak aurrekontuak egokitu behar izan ditu, bai eta neurriak hartu ere, aurrekontuak berrantolatzeke eta hasiera batean beste kolektibo edo jarduera batzuetarako aurreikusitako kredituak Covid-19 gaixotasunak eragindako kolektiboei bideratzeko.

Horrenbestez, egokia da aipatutako deialdia indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia, zeina diputatu nagusiaren otsailaren 14ko 75/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

Bigarrena. Bertan behera uztea gastu baimen hauek:

– 55.000,00 euro, 1.30.5.02.3700.765.00.01 partidakoak (xedapen erreferentzia: 105.600/000).

– 65.000,00 euro, 1.30.5.02.3700.762.90.01 partidakoak (xedapen erreferentzia: 105.599/000).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta ebazpen hau jakinaraztea diputatu nagusiaren otsailaren 14ko 75/2020 Foru Dekretuaren babespean turismoa sustatzeko jarduerak egiteko laguntzak eskatu zituzten kuadrillei eta udalei.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertzeke errekurtsioa jar daiteke diputatu nagusiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen, administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta*

*Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**